



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Prensa-oharra

Bizkaiko garraio sistemaren gaur eguneko egoereaz txosten tekniko-juridikoa egiteko eskatu deusie Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Aldundiari

- **Azterlana urriaren 15a baino lehen amaitu beharko da eta horretan oinarritu leiteke Garraiorako Agintaritza bakarra sortzeaz eta Bizkaiko Garraioen Partzuergoaren etorkizunaz erabagiteko beren-beregiko Ponentzia, ponentzia hori inoizkoan sortuko balitz.**

Bilbon, 2012ko ekainaren 27an.

Bizkaiko Batzar Nagusiek gaur goizean izandako Herri Lan eta Garraioetako Batzordean onartu dabe Bizkaiko garraio sistemaren gaur eguneko egoereaz txosten tekniko-juridikoa egitea. Talde ekimengileek (Euzko Abertzaleak Taldeak eta Bizkaiko Talde Popularrak) uste dabe txosten hori “oinarria” izan leitekeala etorkizunari begira erabagi egokiak hartzeko.

Txostena egiteko agindu beharko dau Aldundiak, eta eginda egon beharko dau urriaren 15a baino lehenenago. Euzko Abertzaleak Taldearen eta Bizkaiko Talde Popularraren aburuz, “Batzar Nagusiek erabaki egokia hartzerik izan dezaten, ezinbesteko gertatzen da Bizkaiko Garraioen Partzuergoaren izaera bere ikuspuntu tekniko-juridikotik zehatz-mehatz ezagutzea, eta horrekin batera, agintaritza bihurtzeko gaitasunik ote duen, agintaritza hori eratzeke dauden alternatibak, bere helburuak, funtzioak eta abar.” Aldundiari txosten hori egiteko eskaria ekarren Arauz Besteko Proposamenaren aldeko botoa emon dau Socialistas Vascos Taldeak be, uste dauelako Ponentzia sortu aurretik ona dala oinarizko dokumentua izatea.

Bildu Taldekoek baino ez dabe ekimen horren aurkako botoa emon, uste dabelako arazo hori aztertzeke Ponentzia behingoan sortu behar dala Batzar Nagusietan. Bilduk hori eskatuz aurkeztu dauen ekimena ez dabe onartu enparauko Taldeek, uneon planteatzea egokia ez zala uste izan dabelako; dana dala, aurrerantzean Ponentzia sortzeke atea edegita itxi ditue.

Neguan zabalduko dira Bilbora Olabeagatik sartzeko bideak.

Socialistas Vascos Taldeak eskaturik batzorderatu da Itziar Garamendi Landa Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatu andrea, eta argibideak emon ditu Sabino Aranako zubi-bideak erasteari buruz. Batzar Nagusietan adierazo dau neguan zabalduko dirala Bilbora



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Olabeagatik sartzeko bideak, baina uneon ez dagoala datarik jarrita Sabino Aranako zubi-bideak erasteko. Eraste horrek 8 milioi euro inguruko gastua eragingo dau.

Beste alde batetik, Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatuak, Itziar Garamendik, argipideak emon ditu Batzordean, Socialistas Vasco Taldeak eskatuta, Egirletan istripua izateagaitik, eta errepide hori “istripu ugariko tartea” deritxenen artean behar bestean seinalizatu barik egoteagaitik, gidari andrazko bat indemnizatu beharrera Aldundia kondenatu izanari buruz. Diputatu andreak adierazo dau ez Euskadin ez Europan ez dagoala definizino “argirik” kontzeptu horrek esan gura dauenaz. Deitura “zaharkitua” dala adierazo dau. Gaineratu dau hori gora-behera, egiten diharduela errepide horren segurtasuna hobatzeko lanak. Socialistas Vasco Taldeko Joaquín Colmenero jaunak eskatu deutso Egirletako errepidearen bikoizketea egin daitela, Bizkaiko errepideetako “gune baltza” dalako.

Metropoliaren Hegoaldeko seinaleetikea aldatzeari buruz, Garamendi Diputatu andreak adierazo dau maiatzean jaso ebela errepide horretako sainaleak hobatzeari buruz Sailak egiteko agindutako azterlana. Azken dokumentua izan dagienean, Batzar Nagusietara argipideak emoteko etorriko dala agindu dau, nahiz eta, berez, gaur egun dagoan senaletikeak “bete egiten dauen indarrean dagoan araudia”. Bizkaiko Talde Popularrak eskatutako ekimen baten eskutik etorri da Diputatu andrearen erantzuna. Talde horretako Isasi jaunak gogorazo dau Batzar Nagusiek abendutik eukela eskatuta ildo horretako ekimenak egitea.

Batzordearen amaieran, Larrañetako funikularrari buruz Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat eztabaidatu da. Talde horren eretziz, aurrekontu-murrizketek eta gure ekonomian dagozanek “arriskutan” jarten dabe Trapagaraneko auzoak lotzen dituan funikularra bizirik egotea etorkizunean. Euzko Abertzaleak Taldeak aurkeztutako zuzenketa-eskea onartu egin da eta, beraz, ahobatez onartu da Bizkaiko Batzar Nagusiek Euskotreni eta Eusko Jaurlaritzari eskatzea etorkizunean bermatu dagiela funikularra normaltasunez egunero jardunean izatea eta emendioa egitea auzokide eta turistei, garraio bide lez ez eze, eskualdearen erakargune eta turismo- eta kultura-dinamizazinarako baliabide lez be.”



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Nota de prensa

Las Juntas Generales solicitan a la Diputación la elaboración de un “Informe Técnico-Jurídico” sobre la situación del transporte público de Bizkaia

- **El estudio tendrá que estar finalizado antes del 15 de octubre y podría ser el anticipo para la creación de una ponencia específica sobre la Autoridad Única del Transporte y el futuro del Consorcio de Transportes.**

Bilbao, a 27 de junio de 2012.

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado esta mañana, en la Comisión de Obras Públicas y Transporte, la elaboración de un “Informe Técnico-Jurídico” sobre la situación actual del sistema de transporte público de Bizkaia, que pueda según los grupos proponentes (Nacionalistas Vascos y Popular Vizcaíno), ser la “base” para que se tomen las decisiones oportunas en el futuro sobre quién debe ser el agente encargado de coordinar y gestionar este transporte.

El informe, que tendrá que ser elaborado por la Diputación antes del 15 de octubre, será necesario para conocer “exhaustivamente la naturaleza del Consorcio de Transportes de Bizkaia, su capacidad de conversión o no en Autoridad Única territorial, las alternativas existentes para la constitución de dicha autoridad, su objeto y funciones”, según los nacionalistas y populares. La petición de este informe a la Diputación, ha sido incluida en una proposición no de norma que ha recibido el apoyo de estos dos grupos, al que se ha sumado el grupo Socialistas Vascos por entender que antes de la creación de una Ponencia es bueno que se parta de un documento.

Bildu ha sido el único grupo que ha votado en contra de la iniciativa al defender la necesidad de crear ya una Ponencia en el seno de las Juntas Generales que aborde esta cuestión; iniciativa que ha sido rechazada por el resto de grupos por entender que no era “oportuno” plantearla en este momento, aunque han dejado abierta la posibilidad para constituir la más adelante.

Los accesos de Bilbao por Oleabaga se abrirán en invierno

La diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha comparecido para poner fecha al derribo de los viaductos de Sabino Arana. Ha anunciado en las Juntas Generales que será el próximo invierno, si sigue el ritmo “previsto” de ejecución de los nuevos accesos a Bilbao por Olabeaga. La respuesta no ha convencido del todo al



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

portavoz socialista en la Comisión, Joaquín Colmenero, quien le ha recordado que tanto el Diputado General como el Alcalde de Bilbao ya anunciaron que sería en 2012.

A petición del Grupo Socialistas Vascos, la diputada ha comparecido también en la cámara vizcaína para informar de las medidas que ha tomado su departamento después de que una sentencia condenara en el año 2009 a la Diputación Foral a indemnizar a una conductora por un siniestro en el alto de Santo Domingo. Según el juez, la zona no estaba debidamente señalizada como un punto de “alta concentración de accidentes”.

Garamendi se ha defendido manifestando que ni en Euskadi ni en Europa existe una definición “clara” sobre lo que significa este concepto. Es un término “obsoleto”. Pese a ello, ha manifestado que en estos momentos se están ejecutando actuaciones para mejorar la seguridad de esta vía. El portavoz socialista, Joaquín Colmenero, le ha pedido que se realice el desdoblamiento de Santo Domingo porque “nos encontramos ante un punto negro” de las carreteras vizcaínas.

En cuanto a la modificación de la señalética en la Variante Sur Metropolitana, Garamendi ha informado de que recibieron en mayo el estudio encargado por el departamento para mejorar las señales informativas de este eje viario. Se ha comprometido a volver a las Juntas Generales para informar de las actuaciones en cuanto tengan preparado el documento final, pese a advertir que la señalética actual “cumple con la normativa vigente”. La respuesta de la Diputada había sido solicitada por el Grupo Popular Vizcaíno. Su portavoz, Jesús Isasi, ha recordado que estas Juntas Generales ya instaron en diciembre a realizar una serie de actuaciones en este sentido.

La Comisión ha concluido con el debate de una proposición no de norma del Grupo Popular Vizcaíno sobre el Funicular de Larreneita. Según este grupo, las restricciones presupuestarias pueden hacer “peligrar” el futuro de este transporte que une varios barrios de Trapagaran. Tras haber sido aceptada las enmiendas presentadas por el Grupo Nacionalista, la iniciativa ha sido aprobada por unanimidad, instando a Euskotren y al Gobierno Vasco a que garanticen en el futuro el funcionamiento normal diario y el mantenimiento del servicio del funicular de la Reineta a los vecinos y turistas, no sólo como elemento de transporte sino como elemento de atracción y dinamización turístico-cultural de la comarca